Bestelako Xedapenak

URAREN EUSKAL AGENTZIA

3442

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 20koa, URA-Uraren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak eta URA-Uraren Euskal Agentziak kudeaketa gomendatzeko egindako akordio bat argitaratzea xedatzen duena.

URA-Uraren Euskal Agentziak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuak 2010eko apirilaren 20an akordioa sinatu dute Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuari gomendatzeko Ura erakundeak 2010eko Lan Eskaintza Publikorako hautaketa-probak egiteko beharrezko izango den kudeaketa material eta teknikoa egin dezala. Hautaketa-prozesu horietarako deia 2009ko azaroaren 18ko Aginduaren bidez egin zuen URAren Administrazio Kontseiluak.

Honen bidez xedatzen da akordio hori ebazpen honen I. eranskin gisa argitara dadila, guztiak jakinaren gainean egon daitezen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

KUDEATZEKO GOMENDIOARI BURUZKO AKORDIOA, ZUZENBIDE PRIBATUKO URA ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEKOA

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 20a.

BILDUTA:

Alde batetik, María Encarnación Echazarra Huguet Andrea, IVAP erakundearen zuzendaria, eta, bestetik, Iñaki Urrizalqui Oroz jauna, Uraren Euskal Agentziaren zuzendari nagusia.

ADIERAZI DUTE:

URA erakundearen Administrazio Kontseiluak 2009ko azaroaren 18an onartu zuen erakunde horretako Lanpostu Eskaintza Publikoa, egun horretan bertan hartutako akordio baten bidez.

Uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, hauta-proben arteko elementu

Otras Disposiciones

AGENCIA VASCA DEL AGUA

3442

RESOLUCIÓN de 20 de abril de 2010, del Director General de la Agencia Vasca del Agua (URA), por la que se dispone la publicación de un Acuerdo de encomienda de gestión celebrado entre la Agencia Vasca del Agua (URA) y el Instituto Vasco de Administración Pública.

La Agencia Vasca del Agua (URA), y el Instituto Vasco de Administración Pública han suscrito, con fecha 20 de abril de 2010, un Acuerdo por el que se encomienda al Instituto Vasco de Administración Pública la gestión material y técnica de la operativa necesaria para el desarrollo de los procesos selectivos pertenecientes a la Oferta de Empleo Público de la Entidad para 2009 convocados por Acuerdo de 18 de noviembre de 2009 del Consejo de Administración de URA.

Para general conocimiento se dispone su publicación como anexo I a la presente Resolución.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.

El Director General de la Agencia Vasca del Agua,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

ACUERDO DE ENCOMIENDA DE GESTIÓN ENTRE EL ENTE PUBLICO DE DERECHO PRIVADO AGENCIA VASCA DEL AGUA Y EL ORGANISMO AUTÓNOMO INSTITUTO VASCO DE ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de abril de 2010.

REUNIDOS:

De una parte doña María Encarnación Echazarra Huguet, Directora del Instituto Vasco de Administración Pública, y de otra, don Iñaki Urrizalqui Oroz, Director General de la Agencia Vasca del Agua,

EXPONEN:

Que por Acuerdo de 18 de noviembre de 2009 del Consejo de Administración de URA quedó aprobada la Oferta de Empleo Público de la Entidad para 2009.

Que la Ley 6/1989, de 6 de julio. de la Función Pública Vasca, asigna al Instituto Vasco de Adminis-

homogenizatzaile izateko ahalmena eman dio IVAPi, izan era, arau horren 29. artikuluak xedatzen du administrazioek aukera izango dutela bertan lan egingo duen jendea erakunde autonomo horren bitartez aukeratzeko, horretarako hitzarmen bat sinatuz gero.

Bi erakundeak prest daude eskuera dauzkaten bitarteko guztiak erabiltzeko, hautaketa-prozesuak berdintasunaren, merituaren eta gaitasunaren printzipioen arabera egin daitezen, enplegu publikoa eskuratzekotan ezinbestean bete beharrezkoa dira eta.

Halatsu, hautaketa-prozesuak egitean, baliabideak kudeatzeko ahalik eta arrazionaltasun handienaz jokatzen saiatzeko prest daude, eta behar besteko arintasuna, gardentasuna eta zerbitzu publikoko kalitatea emateko.

Egoera horretan erabaki dute bi erakundeen kudeaketa gomendio sinatzea, zehazki, klausula hauen arabera.

KLAUSULAK

Lehenengoa.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluak xedatzen duenez, Uraren Euskal Agentziak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuak erabaki dute, eraginkortasunaren mesedetan, IVAPek Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan jardun behar lukeela lehen aipatutako prozesu horretako hauta-probak martxan jartzen eta garatzen laguntzeko.

Bigarrena.– Laguntza eskatzen badute, Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuak laguntza emango die epaimahaiei, hautaketa-prozesuaren edozein fasetan. IVAPek emango duen laguntza, nolanahi, prozesuko honako fase guztietarako edo batzuetarako emango du.

a) Hautaketa-prozesuak kudeatzeko aplikazio informatikoa egokitzea aipatutako hautaketa-prozesu horretako eskabideak jasotzeko.

b) Eskaerak jasotzeko kudeaketa.

c) Tasen ordainketaren izapideen kudeaketa.

d) Euskararen 1., 2., 3. eta 4. hizkuntza-eskakizunak ziurtatzeko probak egin eta zuzentzea, Uraren Euskal Agentziak egin behar dituen hautaketa-prozesuetan.

e) Fase bakoitzeko onartuen eta baztertuen zerrenda jartzea eta errebisatzea Uraren Euskal Agentziaren web-orrian.

f) Uraren Euskal Agentziak izendatutako idazkaritzarekin koordinazioan jardutea, hautaketa-prozesuaren faseetako epeak eta betekizunak betetzen ote diren ikusteko.

tración Pública el carácter de elemento homogeneizador de los distintos procesos selectivos, por la posibilidad que la norma ofrece, en su artículo 29, a las distintas administraciones de efectuar la selección de su personal a través del Organismo Autónomo, mediante convenio suscrito al efecto.

Que es voluntad de ambos organismos poner todos los medios a su alcance para que el proceso selectivo se desarrolle de acuerdo con los principios de igualdad, mérito y capacidad que rigen el acceso al empleo público.

Que, de la misma manera, procurarán dotar al proceso selectivo de la mayor racionalidad en la gestión de recursos, así como de las adecuadas cotas de agilidad, transparencia y calidad de servicio público.

Que en este marco ambas instituciones acuerdan la firma de un acuerdo de encomienda de gestión con arreglo a las siguientes:

CLÁUSULAS

Primera.– La Agencia Vasca del Agua y el Instituto Vasco de Administración Pública acuerdan, en el marco de lo dispuesto en el artículo 15 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común que, por razones de eficacia, el citado Instituto colabore de manera genérica con la Agencia Vasca del Agua en la puesta en marcha y desarrollo de las pruebas selectivas del proceso arriba mencionado.

Segunda.– El Instituto Vasco de Administración Pública prestará la colaboración que los Tribunales soliciten en cualquier fase del proceso selectivo. La colaboración del Instituto Vasco de Administración Pública, en su caso, podrá versar sobre algunas o todas de las siguientes fases del proceso:

a) Adecuación de la aplicación informática de Gestión de Procesos Selectivos para la recepción de solicitudes del proceso selectivo mencionado.

b) Gestión de la recepción de solicitudes.

c) Gestión de la tramitación del pago de tasas.

d) Realización y corrección de pruebas para la acreditación de los perfiles 1, 2, 3 y 4 de euskera en los procesos selectivos que la Agencia Vasca del Agua tenga que realizar.

e) Carga y revisión de listados de admitidos y excluidos en cada una de las fases en la página web de la Agencia Vasca del Agua.

f) Coordinación con la secretaría técnica designada por la Agencia Vasca del Agua, en relación al seguimiento de plazos y requisitos de las distintas fases del proceso selectivo.

g) Azterketa-ereduak prestatzea, epaimahaiek eskatutakoaren arabera, egin beharreko probak prestatzeko gida izan daitezen.

h) Epaimahaiek eskatutakoaren arabera, azterketak egitea eta, hala badagokio, haien zuzenketa mekanizatua.

i) Kide bat jartzea epaimahaietan, IVAPeko ordezkari.

Hirugarrena.– Uraren Euskal Agentzia-URA izango da sortuko den datu-fitxategiaren arduraduna. IVAP izango da datuen tratamenduaren eragilea, eta kudeaketa-gomendioaren xedea gauzatutakoan eta hautaketa prozesuan parte hartu dutenen datuak hitzartutako euskarrian URA-Uraren Euskal Agentziari eskualdatutakoan, IVAPek suntsitu egingo ditu datuok, eskualdaketa egin ondoko 7 eguneko epean.

Laugarrena.– Tratamenduaren eragileak, tratamenduaren arduradunak emandako jarraibideen arabera bakarrik tratatuko ditu datuak, eta ez ditu aplikatuko ez erabiliko kudeaketa-gomendio honetan ezarritakoaz besteko xedeetarako. Gainera, ez dizkie inori helaraziko datuok, ezta kontserbatzeko ere.

Tratamenduaren eragileak ez ditu inoiz eta inola ere gordeko datuok, ez eta kopiatuko ere. Gainera, ez dizkio datuok jarduera honekin zerikusirik ez duen inori jakinaraziko, ez eta erakutsiko edo helaraziko ere, eta betebehar hori izaten jarraituko dute fitxategiaren arduradunak kudeaketa amaitutakoan ere. Betebehar horrek tratamenduaren eragileari eta datu pertsonaletara sarbidea izan dezakeen edonori eragiten die.

Bosgarrena.– Izaera Pertsonaleko datuak Babesteari buruzko Lege Organikoaren 9. artikulua betetze aldera, Tratamenduaren Eragileak datu pertsonalen erabateko segurtasuna bermatzeko behar diren neurri teknikoak eta antolaketa-neurriak ezarri beharko ditu, datuok inola ere alda edo gal ez daitezen, baimenik gabe tratatu ez daitezen edo datuotara baimenik gabeko sarbiderik izan ez dadin.

Seigarrena.– Kudeaketa-gomendioaren indarraldia akordio hau sinatzen den egunean hasiko da, eta hautaketa-prozesuaren behin betiko emaitzak argitaratzen direnean amaituko.

Zazpigarrena.– Kudeatzeko gomendio honek ez dakar URA-Uraren Euskal Agentziari emandako eskumenen titularitatea lagatzerik, ez eta eskumen horiek erabiltzeko osagai funtsezkoen titularitatea lagatzerik ere.

Zortzigarrena.– URA-Uraren Euskal Agentziaren erantzukizuna da izaera juridikoko ebazpenak edo egintzak ematea, kudeatzeko gomendio honen xedea den jarduera material zehatzaren euskarri izan daitezen edo jarduera bera ebazpen edo egintza horietan integra dadin.

g) Aportación de modelos de examen, a demanda de los respectivos Tribunales que sirvan de guía para la confección de las pruebas a realizar.

h) Elaboración y, en su caso, corrección mecanizada de exámenes a demanda de los respectivos tribunales.

i) Participación de un miembro del IVAP en los Tribunales.

Tercera.– El Responsable del Fichero de datos originado será la Agencia Vasca del Agua (URA). El IVAP tendrá la consideración de Encargado del Tratamiento de datos y una vez finalizado el objeto de la encomienda y traspasados los datos de los participantes en el proceso selectivo a la Agencia Vasca del Agua (URA) en el soporte que se acuerde, el IVAP procederá a destruir los mismos en el plazo de 7 días desde su traspaso.

Cuarta.– El Encargado del Tratamiento únicamente tratará los datos conforme a las instrucciones del responsable del tratamiento, y no los aplicará o utilizará con fin distinto al que figure en esta encomienda, ni los comunicará, ni siquiera para su conservación, a otras personas.

Bajo ninguna circunstancia el Encargado del Tratamiento conservará, comunicará, copiará o revelará dato alguno a cualquier persona ajena a esta actividad, obligación que subsiste aún después de finalizar la encomienda de gestión realizada por el Responsable del Fichero. Dicha obligación afecta tanto al Encargado del Tratamiento como a cualquier persona que pueda tener acceso a los datos de carácter personal.

Quinta.– En cumplimiento del artículo 9 de la Ley Orgánica de Protección de Datos, el Encargado del Tratamiento deberá adoptar las medidas de índole técnica y organizativas necesarias para garantizar la total seguridad de los datos de carácter personal, evitando cualquier alteración, pérdida, tratamiento o acceso no consentido a los mismos.

Sexta.– El plazo de vigencia de la gestión encomendada comenzará a contar desde la fecha de suscripción del presente acuerdo y finalizará cuando se publiquen los resultados definitivos del proceso selectivo.

Séptima.– La encomienda de gestión no supone cesión de la titularidad de las competencias ni de los elementos sustantivos de su ejercicio, atribuidas a la Agencia Vasca del Agua (URA).

Octava.– Es responsabilidad de la Agencia Vasca del Agua (URA) dictar los actos o resoluciones de carácter jurídico que den soporte o en los que se integre la concreta actividad material objeto de la presente encomienda de gestión.

Bederatzigarrena.– Epamahai bakoitzak akta egindo du, edukia bera eta kasuan kasu beharko den elkarlan mota ahalik eta zehaztapen handienaz jasota, eta argi eta garbi utzita noiz haziko eta bukatuko den elkarlana. Hautaketa-probetatik agindu zaizkion faseak edo zareginak IVAPek ondo bete ditzan, Epaimahai Kalifikatzaile bakoitzak aukera izango du IVAPen lan hori egitekoa den esparru orokorra edo jarraibideak zehazteko.

Edonola ere, lankidetza behar beste denbora aurretik eskatu behar da, agindu zaizkion lanak behar bezala egiteko modua izan dezan.

Hamargarrena.– Zenbait gauza inork ardura hartu gabe ez geratzeko, edo batek baino gehiagoren ardurapean ez geratzeko, IVAPek soil-soilik prozesuko zenbait zeregin edo fase hartuko ditu bere gain, baldin bere osotasunean agintzen bazaizkio.

Hamaikagarrena.– Halako akordioren bat sinatuta daukaten epaimahaiek idatziz jo beharko dute IVAPeko zuzendari andrearengana, URA-Uraren Euskal Agentziaren Adminsitrazio eta Zerbitzuen Zuzendaritzaren bitartez, laguntzeko eskatzeko, betiere, elkarlaneko hitzarmen honetako klausuletan adierazitako baldintzen arabera.

Hamabigarrena.– Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuko zuzendariak izendatuko du agindutako zeregin bakoitzean arduraduna izango dena (edo izango direnak), eta Epaimahai Kalifikatzaileari jakinaraziko dio idatziz.

Hamahirugarrena.– URA-Uraren Euskal Agentziaren kontura izango dira kudeaketa-gomendio honek dakarren kudeaketa materialaren gastuak.

IVAPek emandako zerbitzuen ebaluazio ekonomikoa Ogasuneko eta Administrazio Publikoko sailburuaren 2007ko uztailaren 18ko Aginduaren arabera egingo da, agindu horrek zehazten baititu Herri Arduralaritzaren Euskal Institutua osatzen duten zerbitzuek ematen dituzten jardueren prezio publikoak. Agindu horren ordez besteren bat ateratzen bada, beste hori izango da araua.

Alderdi biak agiri honen edukiarekin ados daudenez, eta horrela jasota gera dadin, URA-Uraren Euskal Agentziaren zuzendariak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak tresna hau sinatu du kudeaketa-gomendioa formalizatzeko.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusia,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.

Novena.– Cada Tribunal levantará Acta, con el mayor detalle posible del contenido y la forma de colaboración que se precise en cada caso, efectuándose expresa mención del momento de inicio y de finalización de la misma. A efectos de encauzar la ejecución por parte del Instituto Vasco de Administración Pública de las fases o tareas del proceso selectivo encomendadas, cada Tribunal Calificador podrá definir el marco general o las pautas dentro de las cuales habrá de desarrollarse el trabajo.

En todo caso, las solicitudes de colaboración se realizarán con la antelación necesaria para una correcta gestión de las mismas.

Décima.– Con el fin de evitar la producción de espacios de ausencia de responsabilidad o de responsabilidad compartida, el Instituto Vasco de Administración Pública únicamente asumirá la realización de determinadas tareas o fases del proceso, si éstas le son encomendadas en su integridad.

Undécima.– Los Tribunales que hayan adoptado alguno de estos acuerdos se dirigirán por escrito al Director del Instituto Vasco de Administración Pública, a través de la Dirección de Administración y Servicios-Agencia Vasca del Agua, solicitando la colaboración requerida en los términos indicados en las cláusulas de este Convenio de colaboración.

Duodécima.– El Director del Instituto Vasco de Administración Pública designará en cada caso la persona o personas responsables de las tareas encomendadas comunicando este extremo por escrito al Tribunal Calificador.

Decimotercera.– Correrán a cargo de la Agencia Vasca del Agua (URA) los gastos que se puedan originar por la gestión material objeto de la presente encomienda.

La evaluación económica de los servicios prestados por el Instituto Vasco de Administración Pública se realizará con arreglo a lo establecido en la Orden de 18 de julio de 2007 de lo Consejera de Hacienda y Administración Pública, por la que se fijan los precios públicos de las actividades que prestan los diferentes servicios en que se estructura el Instituto Vasco de Administración Pública o aquella Orden que la sustituya.

Y estando ambas partes conformes con el contenido de este documento y, para que así conste, suscriben el presente instrumento de formalización de encomienda de gestión el Director General de la Agencia Vasca del Agua y la Directora del Instituto Vasco de Administración Pública.

La Directora del Instituto Vasco de Administración Pública,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

El Director General de la Agencia Vasca del Agua,
IÑAKI URRIZALQUI OROZ.